



Azaroaren 8an abiatuko da Xilaba Bertsolari Txapelketa

24 bertsolarirekin ekingo dio bideari txapelketak; Bidarten abiatuko da azaroaren 8an eta finala Donibane Lohizuneko Jai Alain izango da, urtarrilaren 31n.

Lau urteren ondoren, hastear da Xilaba Bertsolari Txapelketa. Hamar saiok osatuko dute, eta bere bidea egingen du Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa zeharkatuz. Azaroaren 8an hasiko da eta urtarrilaren 31n bukatu, Donibane Lohizuneko Jai Alain.

Txapelketak lau fase izanen ditu: lehenengo fasea, bigarren fasea, final aitzinekoak eta finala. Lehen fasean lau saio jokatu dira eta 24 bertsolarik kantatuko dute; bigarren faseak hiru saio izanen ditu 18 bertsolarirekin; final aitzinekoetara 12 bertsolari sailkatuko dira; eta final egunean sei bertsolari lehiatuko dira, txapelaren bila.

Antolakuntzak bidekoak eskertu nahi izan ditu: gai-emaileak, epaileak, talde antolatzailea, komunikazio taldea eta saioz saio laguntzera joanen diren bertso eskolako kide eta orotariko lagunak. Era berean, urte osoan zehar babesa ematen duten bazkide, elkarte, erakunde eta enpresa pribatuak ere eskertu nahi izan dituzte.

Sartzeak, salgai

Saioetako sartzeak www.bertsosarrerak.eus atarian erosten ahal dira. Horrez gain, saio bakoitzean leihatila irekiko da eta bertan euskoz edo txekoz ordaintzen ahalko da.

Lehen fasea

- Azaroak 8, larunbata
- Azaroak 15, larunbata
- Azaroak 22, larunbata
- Azaroak 30, igandea

Bidarte, Antzokia
Domintxaine, Herriko gela
Ainhoa, Elkartetxea
Ligi, Herriko gela

Bigarren fasea

- Abenduak 6, larunbata
- Abenduak 13, larunbata
- Abenduak 21, igandea

Aiherra, Denen etxea
Muskildi, Posonpesenea
Hiriburu, La Perle

Final aitzinekoak

- Urtarrilak 10, larunbata
- Urtarrilak 17, larunbata

Baigorri, Plaza Xoko
Bardoze, Ezker Pareta

Finala

- Urtarrilak 31, larunbata

Donibane Lohizune, Jai Alai

*Saio guztiak 17:00etan izango dira.



MADDALEN
ARZALLUS ANTIA

ASTEASU. 2025-10-17

PELLO ERROTA SARIKETAKO
TXAPELDUNA

Doinua: Zer da gaur Donostian

Asko luzatu gabe
denei esker mila
ta txapelketak martxan
duenez gorpila
gaur lortua Xilaban
berdindu dadila
ta han ez badut lortzen
txapel borobila
hona itzuliko naiz
goxotasun bila. (bis)

Zabalik dago Gipuzkoako Herriartekoan izena emateko epea

Gipuzkoako Herriartekoaren III. edizioa jokatu da 2026ko urtariletik maiatzera bitarte. Izen-ematea irekita dago eta azaroaren 9an amaituko da.

Zortzi urteren ondoren, badator bueltan Gipuzkoako Herriarteko Bertso Txapelketa. Auzolanean antolatutako txapelketa izango da 2026koa ere, eta herrietako bertso mugimendua bultzatu, indarberritu eta ikusaraztea dira helburuak, besteak beste.

Taldeak osatu eta izena emateko baldintzak honakoak dira: talde bakoitzak gutxienez bost partaide izan beharko ditu: hiru bertsolari, gai-jartzaile bat, epaile bat eta ordezkari bat. Azken

hori aurreko hiru lanetako bat egiten ari den pertsonak ere egin lezake. Gutxienez 15 urte izan beharko dira txapelketan parte hartzeko.

Herriartekoari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, gipuzkoa.sustapena@bertsozale.eus helbidera idatz daiteke, eta izena emateko, www.bertsozale.eus atarian bete daiteke formularioa.

Hasi da Ærrimatu, 2026ko Arabako Bertsolari Txapelketara sailkatzeko fasea

Bost saio jokatu dira guztira eta 13 bertsolari sailkatuko dira urtarilean hasiko den txapelketara; 18koa osatzeko beste bostak, 2024ko finalistak izango dira.

18 bertsolarik parte hartuko dute 2026ko Arabako Bertsolari Txapelketan, baina horretarako, Ærrimatu jokatu behar da lehenengo, sailkatze fasea.

35 lagunek eman dute izena fase honetan, eta bost saio jokatu dira: Amurrion, Legution, Ozaetan, Bernedon eta Gasteizen. Lehenengo biak jokatu dira eta hiru falta dira: azaroaren 7an, 8an eta 9an izango dira, Ozaetan, Bernedon eta Gasteizen, hurrenez hurren.

Saio bakoitzeko irabazlea zuzenean sailkatuko da txapelketara, eta gainontzeko bertsolariek puntuazioen arabera izango dute horretarako aukera. 13 bertsolari sailkatuko dira fase honetatik txapelketara; beste bostak 2024ko finalistak izango dira.

Arabako Bertsolari Txapelketa urtarilaren 17an aurkeztuko da eta martxoaren 28an amaituko da, finalarekin, Gasteizen.



Amurrion izan da sailkapen faseko lehenengo saioa. //XDZ

Deserosotasunetik gauza ederrak sortzeko itxaropena

Zuzeneko musika elektronikoa eta bat-bateko bertsolaritzaren arteko elkarlana du abiapuntu 1TZ4L1 3T4 P1ZTU emanaldiak, eta abiaburua bertsoak eta musikak batzen dituen hiru kideren ideian dago: Aner Peritz Manterola, Libe Goenaga Arrieta eta Manex Pagola Apezetxea. Taldea osatzen dute hiru gai-emailek eta 11 bertsolarik.

ITZALI ETA PIZTU izena du sortu berri duzuen emanaldiak. Zer piztu nahiko zenukete emanaldiarekin? Eta zer itzali?

M. Pagola: Aparatu elektronikoek funtzionatzen ez dutenean, irtenbide ona izaten da askotan hauek itzali eta piztea. Gauza konkretuak itzali edo piztu baino, saioak duen berezitasunari egiten dio erreferentzia. Orain arte egin denetik desberdintzeko modu bat dela esango nuke.

Musika eta bertsoa uztartzen dituzue. Ez da bi diziplina horiek bat egiten duten lehen aldia, baina oraingoan musika elektronikoa da joko duzuen. Hori da desberdintasuna? Zergatik elektronikoa?

L. Goenaga: Denbora da plazan bertsoa musikarekin uztartzen ikusi genuela. Bertsoa kantu melodikoa izanda, joera normala da musikaz hitzak edertzea. Orain arte, ordea, musika estilo antzekoak erabili izan dira horretarako. Lankuren proposamena izan zen gizartearen hain modan dagoen musika elektronikoarekin frogak egitea. Bertso musikatuak garai berrietara egokitze modua izan daiteke.

Orain arteko frogetan ezberdintasun nabaria sumatu dugu orain arte entzun izan ditugun bertso saio musikatuak. Ohiko bertso-saio musikatuaren musikak protagonismoa hartzen du eta hitzari indarra kentzen dio batzuetan. Musika elektronikoa hitza edertzen laguntzen du. Musika erabat bigarren planoan geratzen da. Bertsoa barneratzeko atrezzo moduko da bat musika elektronikoa.

Zein doinu ekarriko dituzue musika estilo horretara?

M. Pagola: Lehenago erabili izan diren bertso doinuak egongo dira, baina doinu berriak ere bai: Bad Bunny, Dido, Rodrigo Cuevas edo Bad Gyalen abestutako doinuak, adibidez.

Beste zerbaitetan ere desberdintzen al da ohiko saio musikatu batetik? Zertan?

A. Peritz: Ohiko saio musikatu batetik ezberdintasun nabarmenak daude formatu aldaketak edo musika elektronikoa sartzeak proiektuaren parte garen kide guztioi eragin digulako. Gai jartzaileak ahalegin berezia egiten ari dira musika estilo berri hauen zaleak edo kontsumitzaileak izan daitezkeen pertsonen errealitateak gaitara ekartzen; gu, musikariok, musika elektronikoaren oinarrien eta bertsoaren bat-batekotasunaren arteko oreka bilatzeko zer utzi, zer berritu, zerekin apurtu... Eta kontziente gara bertsolariak ere ahalegina egiten ari direla autotunearekin kantatzeko, doinu berri hauetara ohitzeko, doinu berri hauek bertso doinu bilakatzeko, doinu zaharrei bertso berriak bilatzeko, gai berrietara egokitzeo...

Denok probatu eta konprobatu dugu ohiko bertso saio musikatu batetik harago doala. Bertso musikatuena nahiko egonkortua dagoen formatua da, eta hau bada zerbait berria, denontzat arraroa, zentzu batzuetan deserosoa, probatzen ari garena... Eta, tira, hortik gauza ederrak sortu daitezkeela uste dugu edo esperantza horrekin ari gara.

Berritasun hauekin guztiekin, zer bilatu nahi izan duzue? Zein helburu duzue?

L. Goenaga: Bertsoak ohituta ez gauden formetan funtzionatzen ote duen deskubritu nahi dugu. Bertsoa beste ikuspuntu batetik landu nahi dugu, eta entzulearen erreakzioa ikusi. Jendea eskaintzen dugunarekin identifikatuta sentiarazi nahi dugu.

Funtzionatzen badu, jende berria bertsoazletzeko modua izan daiteke. Plazan bertsolaritzak iraun nahi badu, etengabe berritu behar dira diskurtsoak eta formak.

Forma emateko prozesua, nolakoa izan da?

M. Pagola: Bertso saio elektroniko bat egiteko, elektronika nola sortu pentsatu behar izan genuen. Sekuentziadore edo programazioek ez zuten balio, bertsolarien bat-batekotasuna mantentzea garrantzitsua iruditzen zitzaigulako. Beraz, sintetizagailuen eta sanplerren bitartez funtzionatzea erabaki genuen. Doinuak adostu eta entseatu ondoren, plazara eramateko ordua iritsi da, baina oraindik sortze-prozesuak jarraituko du.

Lehen plazak eginda, zein sentsazio edo aho zaporearekin gelditu zarete?

A. Peritz: Orain arte bi entsegu ireki egin ditugu, eta egia da denok nahiko beldurtuta edo zalantza dezenterekin joan ginela, baina oso balorazio positiboa egin dugu. Nahiko ondo atara dira, denok egon gara eroso nolabait, publikoak erantzun ona eman digu, ongi baloratu du... Nahiko emaitza onak eman ditu oraingoz eta gogoia daukagu entsegu irekiaren tranpatxorik gabe plazaz plaza ibiltzeko.

Dagoeneko data batzuk ere badituzue lotuta... Zer nolako espaziotan egiteko da aproposa?

L. Goenaga: Espazio informaletan aritzea gustatuko litzazuke, proiektuari seriotasuna kentzeko eta gertutasuna emateko. Kafe antzokiak, txiringitoak, tabernak... espazio idealak dira saio hauetarako.

Eta zein ikus-entzulerentzat dago sortua?

M. Pagola: Orokorrean bertso-saio musikatuak atsegin dituen edonorentzat. Nik uste badela jende gazteagoan pentsatuta sortutako emanaldi bat, baina helduenek ere gozatzeko modukoa da.



Peritz, Goenaga eta Pagola, emanaldiko partaideak. //XDZ



Puntua jarrita

HAIRA AIZPURUA IBARGARA

Nik ere plazer hartu dut bertsoei bueltak eman bitartean zurekin gailetak konpartitzean, Ekhiñe. Zure galderari erantzunez, bertsoan aritzeko osagai lagungarriak eta kantuan irauteko errezeta bat atzemaitea gustatuko litzaidake, egia erran. Nago, existituko balitz ere (eta existitzen bada keinu egin) ez litzatekeela bakarrik xokolate zaporekoa.

Ene kasuan, agendan bertso eskolak eta saioak ilusio handiz eta pozik apuntatzen baditut ere, ezin dut jakin momentuan berean ilusio berarekin gauzatuko ditudan. Zeren, ez, bertso jardunean ez naiz beti kontent, gustura eta supermotibatua egoten. Onddo izenak buruan iltzatzen ez zaizkidanean, Google Mapsean helmuga idatzi eta geltokiz tronpatzen naizenean edo tisana bat egin eta edatea ahazten dudanean ere, bertsoarako denbora zenari hala izaten uzten diot, alta. Ene inguruan bertsoarako gogo ezaren aitorpena entzuten hasi nintzenean onartu nion nere buruari ere, besteen ahotan errazago berbalizatuko balitz bezala.

Erranen nuke osagairik garrantzitsuena lagunartea dela. Agian batzuk pentsatuko dute "Lagunak, harremanak, tar-tar-tar ..." baina ez; ez da hastiala izatea; halaxe sentitzen dut. Bertso eskolen aintzineko kafea edo ondoko bazkariak aipatu nahiko nituzke. Elkarri onartzen baitiugu ez garela soilik bertsoarako elkartzen; elkarrekin momentu goxoak pasatzen ditugu hizketan eta, bertsoak elkarrekin bagintuen ere, orain ez gaituela horrek lotzen.

Hala ere, kasu batzuetan bertsoa bera izan da beste korapilo batzuk askatzeko errezeta. Bertsoa terapeutikoa ez den arren, zenbaitetan burua beste norabait bideratzeko manera izan da enetzat. Deustarako gogorik ez eduki arren, bertsoan aritzeak berriz hankak lurrean ezartzen lagundu izan dit.

Maddi, neguko arratsalde ilun eta hotzetan, unibertsitatea basamortu bilakatutakoan, mintegi hori bunker bihurtu izan dugu. Bunkerretik, betonezko galdera bat: nola uztartzen dituzu neguan zein udaberrian, bertsoarritza eta denbora galdegiten dizuten beste engaiamenduak?

Koplak

Azaroaren 3an hasiko da BBK Bertsolari Gazteen Sariketa

Lau kanporaketa, finalaurreko bi eta finala jokatu dira aurtengo BBK Bertsolari Gazteen Sariketan. Taldeka kantatuko dute bertsolariek, bi multzotan: 2007an edo ostean jaiotakoak, eta 2000 eta 2006 bitartean jaiotakoak. Zortzi taldek eman dute izena gaztetxoetan eta bost taldek nagusietan; guztira, 33 bertsolarik. Finala abenduaren 4an jokatu da Zornotzako Zelaieta Zentroan, 18:00etatik aurrera.

Poto-Finixa



Asko pisatzen du lanak...

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Lehen aldiz jarri da martxan Adin-adin egitasmoa Nafarroan

Sei saiorekin abiatu da Nafarroako adinekoen egoitzetan Adin-adin egitasmoa, Euskarabidearen laguntzarekin. Lekunberrin, Altsasun, Elizondon, Beran, Lesakan eta Malerreko nagusien egoitzetan izango dira bertso saioak eta, guztira Nafarroako 12 bertsolarik hartuko dute parte. Bizkaian aurtengo bigarrenegiz egin da egitasmoa eta 11 egoitzetan izan dira saioak. Gipuzkoan ibilbide luzea du Adin-adinek: 2014an abiatu zen. Aurtengo, ondo bidean, urtea bukatu baino lehen 30 saio egiteko aukera izango da.

